

## IRAGARKIA

### 202. ALDIZKARIA - 2021eko abuztuaren 27a

#### 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

##### 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK ETXALAR

#### Oihan aprobetxamenduen enkantea

Etxalarko Udalak, behar bezala baimenduta, enkante publikoa egingen du, gutun-azal itxien prozedura erabiliz eta sesteorako eskubidearekin, honako oihan aprobetxamendu hau saltzeko:

##### -1. lotea:

- Alderdiak: Arrizabaleta, Artzamina, Ezkututza, Galardi, Nabarrola, Salañeko borda, Unanegi, Hirusasi (6b, 85ef, 15f, 13d, 84ifg, 19f, 20e, 67b, 18e, 83f eta 26gh unadak).
- Espeziea: larizio pinua (*Pinus. nigra*) eta alertzea (*Larix kaempferi*).
- Bolumena: 2.640,03 m<sup>3</sup> (322,06 m<sup>3</sup> zur eta 2.317,97 m<sup>3</sup> enbor txiki).
- Oin kopurua: 19.003
- Mozketa-mota: Bakantzea.
- Hasierako prezioa: 16.742,79 euro, BEZ kanpo.

##### -3. lotea:

- Alderdiak: Altxata, Arrakoitz, Olazarra, Zimeldiko erreka (42a, 55c, 56b, 94gh, 1d, 4cdf unadak).
- Espeziea: akazia (*Robinia pseudoacacia*), gaztainondoa (*Castanea sativa*), platanoa (*Platanus hybrida*), pagoa (*Fagus sylvatica*), haritz amerikarra (*Quercus rubra*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), gereziondoa (*Prunus avium*), astigarra (*Acer pseudoplatanus*).
- Bolumena: 2.632,46 m<sup>3</sup> (1.981,73 m<sup>3</sup> zur eta 650,73 m<sup>3</sup> enbor txiki).
- Oin kopurua: 4.293.
- Mozketa-mota: Erabat, bakantzea.
- Hasierako prezioa: 35.612,06 euro, BEZ kanpo.

##### -4. lotea:

- Alderdiak: Hirusasi, Zimeldiko erreka (25bd, 4eg, 5cfim unadak).
- Espeziea: haritz amerikarra (*Quercus rubra*), Lawson altzifrea (*Chamaecyparis lawsoniana*).
- Bolumena: 966,18 m<sup>3</sup> (616,98 m<sup>3</sup> zur eta 349,20 m<sup>3</sup> enbor txiki).
- Oin kopurua: 722.
- Mozketa-mota: Erabat, bakantzea.
- Hasierako prezioa: 13.471,73 euro, BEZ kanpo.

Proposamen ekonomikoak Etxalarko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira 2021eko irailaren 16ko 11:00k baino lehen; hasierako prezioaren %2 utzi izanaren gordekina ere aurkeztuko da proposamenarekin batera, eta onartutako ereduari lotuko zaio.

Eskaintza ekonomikoak Udalaren osoko bilkuren aretoan irekiko dira, 2021eko irailaren 16ean, 12:00etan.

Sesteorako epea bukatuko da 2021eko irailaren 22an, 12:00etan.

Sesteoa izanez gero, bigarren enkantea 2021eko irailaren 22an, egingen da, 13:00etan, Etxalarko Udalaren osoko bilkuren aretoan.

Klausula ekonomiko-administratibo partikularren eta baldintza teknikoen agiriak interesdunen eskura daude Udal Idazkaritzan eta udaleko web atarian ([www.etxalar.eus](http://www.etxalar.eus)).

Etxalarren, 2021eko abuztuaren 27an.–Alkatea, Miguel María Irigoien Sanzberro.

Iragarkiaren kodea: L2112259